

ABOKATU GAZTEAK ETA EUSKARA JURIDIKOA

Joan den otsailaren 29an *Abokatutza Gaztearen I Euskal Kongresua* egin zen Bilbon, Abokatu Gazteen Euskal Federazioak antolatuta. Horren barruan, Bizkaiko Abokatu Gazteok euskara juridikoaren erabilpenaren normalizazioa aztertzeko eztabaida-foroa prestatu genuen.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa indarrean dago, eta arlo ezberdinen arabera gehiago edo gutxiago erabili da. Eremu juridikoan mahai-ingurua planteatu genuen instantzia desberdinak parte hartuz: Euskaltzaindia, Zuzenbidearen Euskal Akademia, Epailegoa, Abokatutza. Horrela egin denaz, egiten ari denaz eta euskara juridikoaren aurrikuspenez ikuspegi osoa lortu genuen.

Andrés Urrutia, euskaltzainburu eta Bilboko notarioak; Edorta Etxarandio, Bilboko Merkataritza arloko 2. zk.ko Epaitegiko magistratuak; eta Alberto Alday, Bizkaiko Elkargoko abokatuak parte hartu zuten.

Andrés Urrutiak euskara juridikoaren kontzeptuari eta zuzenbide pribatuan duen erabilerari buruz gogoeta egin zuen. Zuzenbidearen Euskal Akademiako aldizkariaren 13. zk. aurkeztu zuen. Bertaratuak artikuluko bidez ekarpenak egitera gonbidatu zituen.

Edorta Etxarandiok praktika judizialean aplikatzen ari diren hizkuntza-normalizaziorako eredu berri eman zuen, eta zuzenbi-

deko profesionalen artean zirkuitu juridikoa sortzea komenigarria dela adierazi zuen, euskara juridikoaren erabilera sustatzeko.

Alberto Aldayk legeria aplikagarria azaldu zuen; euskarazko ofizioko txandaren eta goardien funtzionamendua adierazi zuen, Bizkaiko Elkargoko sistema hori aintzidaria baita, eta zerbitzuaren erabilerari buruzko datu estatistikoak eman zituen.

Jardunaldiak Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Baionako Elkargoko kideok bildu zituen. Adierazpenen ondoren galdera-txanda ireki zen.

Hizlarien berbei eta eztabaidari esker segidan zehazten diren konklusioak atera ditugu. Batzuk zabaltzeko gogoetak dira eta beste batzuk bultzatzeko proposamenak.

Hona hemen euskara juridikoaren erabilpenaren normalizazioari buruzko konklusioak:

1. Euskara tresna baliagarria da ideia juridikoak adierazteko. Euskara juridikoen sustraiak euskararen morfosintaxi eta terminologiaren barruan bateratze-prozesuan eta ohizko hizkeran kokatzen dira, ugaritasun kulturala kontutan hartuz.

2. Euskara juridikoaren erabilpenaren normalizaziorako baliabideak: Unibertsitate publikoak eta pribatuak espainiar ordenamendu juridikoaren lege nagusiak euskaratu dituzte; Euskarazko idazki-ereduak Abokatuen Elkargoen lankidetzaz. Unibertsitatean Zuzenbidearen lizentziatura euskaraz irakasten ari da. Bost Aldizkari Ofizialek eduki elebidunaz argitaratuta. Hiztegiak: gaztelera-euskara-frantsesa. Zuzenbidearen Euskal Akademiak aldizkari juridikoaren ale bat dena euskaraz eta gaztelera euskarazko artikulua barne hiru ale argitaratzen ditu.

3. Justizia Administrazioan euskararen erabilpenaren normalizaziorako abokatuak, epaileak, fiskalak, idazkariak eta Justizia Administrazioaren langileak euskararen erabiltzean kapazak izateko baliabideak bultzatu behar dira, doako ikastaroen bidez; Justizia Sailburuan Justizia Administrazioari buruzko kexen erdiak

herritarren hizkuntza-eskubideen kontra joateagatik baitira, euskara hizkuntza ofiziala epaitegien aurrean erabiltzea erabakitzen duenari uko egiten zaiolako.

4. Euskara juridiko judizialaren erabilpenaren normalizaziorako Abokatuen artean epaitegietan demandak euskaraz planteatzeko joera bultzatzea beharrezkoa da; batez ere euskara gehiago erabiltzen den arlo juridikoetan: familiako zuzenbide pribatuan, foru-zuzenbide zibilean.

5. Euskaraz planteatutako prozedimenduak Epaitegi-barruti bakoitzean Epaitegi bat gutxienez euskaraz tramitazioa bermatzeko Justizia Administrazioak baliabideak egokitzea komenigarria dela uste dugu; hizkuntza-eskubideen kontra joatea ekiditzeko.

6. Hizkuntza koofiziala izanez euskararen erabiltzeko eskubi-dea dago Administrazioan, Epaitegietan, arlo juridiko-publikoan legeria aplikagarria oinarrituz- Espainiako Konstituzioa (3. art.), Euskal Herriaren Autonomia-estatutua (6. art), Botere Judizialaren Lege Organikoa (231 art.), 30/1992ko Legea (36 art.), Prozedura Zibileko Legea (142 art.), eta Azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legea Euskararen erabilpena arauzkotzekoa (5 art. eta Bigarren Idazpuruko Lehenengo Atalburua).

7. Euskarazko letratu-asistentzia bermatzeko baliabideak bultzatu behar dira, Atxilotuari Urgazpen Zerbitzua eta Ofiziozko Txanda guardia-sistemaren bidez; osatzen duten abokatuek euskara ezagutu behar dute eta euskara juridikoa erabiltzeko gaiak izan behar dute; ez dauden lekuetan sistema hauek sortu behar dira eta daudenean sistemaren erabilpena bultzatu behar da herritarrek ezagutarazteko.

8. Euskara komunikazio-ikuspegitik elementu garrantzitsua den gizarte batentzat legelariak lan egiten du, eta demanda hauei erantzuna egokia ematen jakin behar du legelariak. Horregatik euskararekiko lotura sentikorra –etxean erabilita– izateaz gain lotura eraginkorra –arlo publikoetan segurtasun juridikoaz– lortzeko, baliabideak bultzatu behar dira.

Euskara juridikoaren erabilpenaren normalizazioari buruzko mahai-inguruaren moderatzailea bihotz-bihotzez hizlariei eskerrak eman nahi dizkiet haien gogoetak eta denbora oparitzeagatik, ideia argiengatik eta garbi adierazteagatik, baita ere eskainitako entusiasmo biziagatik. Bizkaiko Abokatuen Elkargo eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren babes handia eta parte-hartzaileei adierazitako interesa ere eskertu nahi ditut.

Ane Martínez Díez